

Bizitegi

35 urte

Txostena. 2014



Erakunde publiko finantzatzaileak



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila
Departamento de Acción Social



Enplegu eta Gizarte
Politiketakoa Saila
Departamento de Empleo
y Políticas Sociales



Osasun Saila
Departamento de Salud



Ayuntamiento de Bilbao
Viviendas municipales
Bilboko Udala
Udal Etxebizitzak



Gizarte Ekintza Saila
Área de Acción Social
Bilbao Ekintza, Epel

Erakunde pribatu finantzatzaileak



Fundación
Antonio Menchaca
de la Bodega
Fundazioa



Banco de Alimentos de
Bizkaia
Bizkaiko Elikagaien
Bankua



Fundación
Carmen Gandarias
Fundazioa



Nola egin dezakezu bat gure proiektuarekin?

- **Boluntario gisa.** "Gizarte solidario baten konpromisoaren adierazle" gisa ulertzen dugu boluntarioritza, eta hala bizi dugu.
- **Bazkide gisa.** Gizartea eraldatzeko konpromisoaz lan egiten dugu, berdintasuna, askatasuna, justizia eta elkartasuna helburu hartuta.
- **Ekarpen ekonomiko bat eginez.**

BBK 2095 0009 88 5060146567

Modu batean edo bestean, gure gizartea eraldatzen lagun dezakezula pentsatzen baduzu, jarri gurekin harremanetan.



- **Egoitza**
Langanan, 14 - behea. 48004 - Bilbo
Tel. 94 608 70 08 - Faxe. 94 608 70 09
bizitegi@bizitegi.org / www.bizitegi.org
- **Etterik Gabekoak programa**
Mugikorra. 688 682 532
- **Programa Dibertsifikatua**
Irumineta, 28 - behea. 48004 - Bilbo
Tel. 94 412 65 76 - Faxe. 94 411 60 88
- **Droga-mendekotasunak programa**
Belategi plaza, 7 - behea. 48002 - Bilbo
Tel. 94 444 25 88 - Faxe. 94 421 20 18



Bada zer ospatu!

Zorionekoak gu, gure ibilbide honen 35. urteurrena ospatzekoak baikara, 35 urtez esperientzia kolektibo bat bizi izana ospatzekoak. Ibilbide horretan, askotariko egoera aldakorrei aurre egin behar izan diegu, horrek berarekin dakarren guztiarekin, eta, atzo bezala gaur ere, pertsonak izan dira gure indar nagusia abentura horretan, pertsonak eta haien harreman gaitasuna –pertsona artekoa zein pertsonaren baitakoa–.

Horregatik, urtemuga hori burura datorkigunean, ezer baino lehen aintzat hartzen ditugu bizileku honen eraikuntzan modu batera edo bestera parte hartu izan duten pertsona guztiak –eta oraindik ere lanean dihardutenak–, bai eta Bizitegiko kide izan ez arren gurekin harremanetan izan diren eta ekimen hau egia bihurtzen lagundu duten guztiak ere.

Guztiak merezi dute gure miresmena eta errekonozimendua, beste pertsona eta erakunde askok bezala, konpromiso sendoa baitute pertsonen duintasunarekin eta bizitza errazten laguntzen duten harremanekin.

Gizartean egiten dugu lan, eta gizartean eragin nahi dugu. Gizartea, ordea, errotik aldatzen ari da gaur. Beti izan da ezinbestekoa inguruan gertatzen dena ulertzea, batez ere, erantzun egokia eman nahi bazaio; baina, gaur, inoiz baino konplexuagoa da Bizitegiren proiektuak helburu duen testuingurua. Gure erronka nagusia da inolako bazterketarik gabeko gizarte baten alde lan egitea, modu aktiboan eta eraginkorrean.

Hogeita hamabosgarren urtemuga ospatzearen xedea ez da bizi izandakoak pozez gogoratzea; aitzitik, aldarrikatu egin nahi dugu Bizitegik baduela zer esan eta zer egin etorkizunera begira. Beste modu batera esanda, argi adierazi nahi dugu gauzak ikus-teko eta bazterketaren aurkako borroka ulertzeko dugun modua ekarpen bat dela, beste batzuen artean, justizia oinarri duen gizarte bat lortzeko helburu hori indartzeko.

Ez ditugu bilatu nahi besteengandik bereizten gaituzten ezaugarriak, gu gizartean izateko arrazoiak baizik. Izan ere, arrazoi horiek oinarri hartuta, topagune bat bilatuko dugu, gure balio berberak dituztenekin ekartzeko eta guztion artean ekimen komunak abian jartzeko.

Gogora ekarri behar dugu Bizitegi 80ko hamarkadan sortu zela, ez marka gisa, lan egiteko modu gisa baizik, eta modu horretan egiten zutela lan beste pertsona eta erakunde batzuek ere; besteak beste, Hogar Izarrak, Caritasen Otxarkoagako lehen harretarako zentroak eta Oinharrian abokatu-langelak. Hori ikusirik, zentzugabea al da kideko erakundeekin ekimen komunak izan nahi izatea?

Bizitegiren egungo egoerak ez du zerikusirik lehen urte haietakoarekin, eta, beraz, lanaren egungo dimentsioarekin eta egoerarekin bat datozen antolakerak behar ditu: banako plan komun bat sistematizatzea, hainbat urterako plan estrategikoa bat egitea, asebetetze-sistemak baliatzea, kudeaketa-sistema eraginkorrak...

Are gehiago, errealitate konplexuago baten aurrean egonik, ikuspegi zabalagoa eta sistematikoagoa behar du Bizitegik. Aurrean dugun erronka da ikuspegi sistematiko hori gure aktibo garrantzitsuenarekin ezkontzea, hots, ikuspegi hori bat etorraztea pertsonon duintasunarekin eta harremanak izateko dugun gaitasunarekin. Eta, pertsonak diogunean, Bizitegiren parte garen pertsona oro aipatzen dugu: erabiltzaileak, langileak boluntarioak zein jarraitzaileak.

Guztion ardura eta erantzukizuna da proiektu honetan pertsona orori lekua egitea, eta horregatik, iaz esaten genuen bezala, berebiziko garrantzia du gure energia modu positiboan eta eraginkorrean bideratuko duten partaidetza-mekanismoak aurkitzeak.

Bizitegikook atsegin dugu gure burua elkartasun-plataforma gisa ikustea, guztiok zer esana eta zer egina dugun plataforma gisa ikustea. Eta horretarako, etengabe elkarrekintzan dihardugu, erakundean zein erakundetik kanpo bizikidetzatza espazioen sorrera lehenesten duen alde biko elkarrekintzan.

Erronka horri gogotsu helduz ospatu nahi dugu 35 urte gerago lanean jarraitzen dugula, proiektu bizi eta konprometitu baten baitan, errespetuaren eta etorkizun duin baten jabe direla aitortzeko premia handiena dutenen alde.

BIZITEGIk 1980an ekin zion bere jardunari, Bilboko Otxarkoaga auzoan, komunitate-lana oinarri zuela. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitatea zelako aitortpena jaso zuen.



XEDEA

Elkarte-izaerako erakunde bat gara, bazkideek, profesionalek, erabiltzaileek eta boluntarioek osatua, eta Bizkaian baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak eta bazterturik dauden pertsonak gizarteratzea da gure lana. Horretarako, esku hartzeko prozesuak egiten ditugu, pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko, eta, horrez gainera, sentikortzeko eta salatzeko ekintzak egiten ditugu, gizarte bidezkoago bat eraikitzeko kontzientzia sorrarazteko. Xede hori betetzeko, pertsona da funtsezko balioa, eta komunitatea da pertsonaren garapenerako lekua.


IKUSPEGIA

Horrelako erakundea izan nahi dugu:

- **Sendoa eta parte-hartzailea**, proiektuaosatzen duten pertsona guztien konpromiso handia izango duena eta partaidetzazko gobernantza baten bidez jardungo duena.
- **Eraginkorra eta iraunkorra**, emaitza objektiboak eta neurgarriak lortuko dituen, arduraz erabiliko dituen eskura dituen baliabideak, kudeaketa aurreratuko eredu baliatuko duena eta finantzatzeko bideak dibertsifikatu eta berrituko dituen; betiere, bere xedea beteko duela eta eragin luzea izango duela ziurtatzeko.
- **Ilusioz betea eta berritzailea**, partaide guztien atxikitze gogotsua eta ilusiozkoa behar duena, sormenaren bidez jardun-modu berriak eratuzko.
- **Erreferentziazkoa gizartean**, onartua eta eragiteko gaitasuna izango duena, gizartearentzat erabilgarri izango diren zerbitzuak emango dituen, itun iraunkorrak landuz Administrazioekin eta gure helburu eta balio berberak dituzten erakundeekin.
- **Pertsona boluntarioen hartzailea**, bazterketaren aurkako borrokan haien konpromiso pertsonala eta soziala eskaintzen duten pertsonen ekarpenentzat gune eragingarriak sortzeko gai izango dena.

BALIOAK

- **Partaidetza**, proiektuaren funtsezko balioa da, pertsona aintzatetsi eta haren protagonismoa nabarmen-tzen baititu. Pertsona guztiek elkartearen jardunean eta komunitate-testuinguruetan partaidetza gogotsua izan dezaten sustatzen eta balioesten dugu, norberaren egitekoetatik abiatuta eta proiektu komun baten kontzientzia izanda.
- **Elkartasuna**, guztion interesean lan egitean ulertzen dute pertsonak haien gaitasunek zentzua eta gizarte-erabilgarritasuna erdiesten dutela.
- **Gardentasuna**, zintzotasuna ziurtatzeko estrategia, kudeaketa-lan eta esku-hartzeen prozesuak betetzeko.
- **Ardura**, pertsona guztiek jarrera arduratsua izan behar baitute proiektuan eta, gainerako pertsonekin bate-ra, taldeko eta elkarte-ko prozesuetan parte hartzean.



- **Zuzendaritza batzordea:** Ricardo Oficialdegui (Presidentea), Alfonso Dubois, Mari Jose Albizu, Sonia Gorbeña eta Manuel Hidalgo.
- **Zuzendaritza taldea:** Aitor Ipiña (Kudeatzailea), Pablo Ruiz (Esku-hartzeen koordinatzailea), Aitor Aresti (Pertsonak), Ana Mateos (Baliabideak), Mónica Fandiño (Kalitatea), Unai Lizarraga (Etxerik gabekoak eta Droga-mendekotasunak) eta Elena Martín (Dibertsifikatua).

Taldea



Aukera 18. Izen horixe jarri diogu BIZITEGIn 2014an egin dugun hausnarketa estrategikorako prozesuari.

Aukera aipatu dugu, ez hautu edo erabaki bat delako soilik, baizik eta abagune edo egokiera bat delako ere bai, eta asmo edo espiritu horrekin eraman dugu aurrera prozesu hori; betiere, kontuan izanda, bate-tik, bazterketa-egoera berriak ditugula aurrez aurre eta egoera horiek gure xedea betetzeko egokiera gisa aintzat hartu behar ditugula, eta, bestetik, erronka berri horiei aurre egiteko hautu egokienak egin behar ditugula.

18 aipatu dugu, halaber, urte horixe dugulako gure hausnarketaren jomuga.

Prozesuak ezaugarri hauek ditzan nahi izan dugu:

- **Partaidetza.** Abiatu berri dugun bide honen benetako indargarria modu kohesionatuan hartutako erabakia izan da –proiektuko partaide, bazkide, boluntario, langile zein erabiltzaile izan, guztion artean hartutakoa–.
- **Irekitasuna.** Errealitatea hainbat ikuspuntutatik aztertu dugu, eta, hasierako urratsetan bederen, amets egin dugu lortu nahiko genituzkeen errealitateekin eta uste osoz geure egin ditugun balioekin.
- **Konpromisoa.** Izan ere, ateratako ondorioen eta hartutako erabakien arabera izan behar dute banako gisa hartuko ditugun konpromisoek, gure baliabideak eta ahalegina aukeratutako norabidean baliatzeko.

Jarraian zerrendatutakoak dira 2015etik 2018ra arteko helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak.

1.H.E.- Kalitatezko esku-hartzeak **indartzea**, pertsona erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetzeko.

1.1.I.- Etengabe hobetzea esku-hartzeak, proposamen berritzaileak landuz.

1.2.I.- Gizarteratzeko aukera berriak ematea.

1.3.I.- Erabiltzaileen bizi-kalitatearen pertzepzioa neurtzeko sistematika bat lantzea.

1.4.I.- Kalitatearen eta esku-hartzeen emaitzen jarraipena, erakunde nabarmenen eskutik.

2.H.E.- Salatzeko eta sentikortzeko ekintzak **bultzatzea**, gizarte bidezkoago bat eraikitzeko urratsak emateko.

2.1.I.- Kanpo-komunikazioa lantzea gizartearekin elkarrengaitzeko.

2.2.I.- Sareetan parte hartzea eta itunak egitea gure helburu eta kokapen berekoak diren gizarteko eragileekin.

2.3.I.- Sentikortzeko eta salaketako jarduera berriak egitea, gure lanaren gizarte-eragina handitzeko.



Zerbitzuak emateko prozesuaren aurkezpena



Hausnarketa estrategikoa

3.H.E.- Komunitatea **indartzea**, gizarteratzeko bitarteko nagusia den aldetik.

3.1.I.- Lan-ildo komunitario berriak urratzea, Pedagogia Sozial Komunitarioaren ereduaren arabera.

3.2.I.- Pertsonen boluntario moduan lan egin dezaten sustatzea eta erabiltzaileek boluntario-lanak egin ditzaten bultzatzea.

3.3.I.- Gure auzoetako erakunde eta elkarteetan partaidetza sustatzea.

3.4.I.- Gure lanaren zehar-ardatzen artean jasotzea genero-berdintasunaren eta euskararen sustapenaren gizarte-lehentasunak.

4.H.E.- Oinarri soziala eta barne-egiturak **indartzea**, proiektuaren luzerako jarraipena ziurtatzeko.

4.1.I.- Proiektuko partaide guztiak motibazioz eta ilusioz parte har dezaten sustatzea, bai bazkideak, bai langileak, bai boluntarioak, bai laguntzaileak.

4.2.I.- Bazkideek parte hartzeko modu eraginkorrak inplementatzea.

4.3.I.- Pertsona profesionalen gaikuntza eta garapena sustatzea.

4.4.I.- Erakundearen barne-egiturak berritzea, eta, horretarako, partaidetzako eta barne-komunikazioko dinamikak sortzea, gardentasunean oinarrituta.

5.H.E.- Bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoa **finkatzea**.

5.1.I.- Urteko sarreraren eta gastuen arteko orekari eustea aurrekontuan.

5.2.I.- Arduraz eta modu iraunkorrean kudeatzea bitarteko materialak.

5.3.I.- Bizitasunez kudeatzea gure finantzazio-emaitza nagusiekin ditugun harremanak, eta, horretarako, proiektu berritzaileak aurkeztea administrazio publikoei.

5.4.I.- Finantzaziorako eta dirua eskuratzeko bestelako bideak sustatzea.

6.H.E.- Aurrera egitea sektoreko erreferentzia izateko bidean, kudeaketa aurreratu eta berritzaileko ereduak erabiliz.

6.1.I.- Kudeaketa aurreratua egitea erreferentziazko kanpo-ereduak erabilita, eta, horren bidez, eragiketarako egiteko modua hobetzea, estrategiaren kudeaketa berritzaileak eginez, harreman-giltzarriak landuz eta emaitzak neurtuz.

6.2.I.- Berrikuntza bultzatzea, eta, horretarako, berritzeko helburuak eta estrategiak zehaztea, ikerketaren, ikaskuntzaren eta sormenaren bidez proiektu berritzaileak landuz.



Bizitegiren batzarra



Bihotza Sarietan jasotako errekonozimendua

Bidelaguntza-eredua

Bidelaguntza-ereduaren helburua gizarteratze-prozesuak erraztea da, horretan ari diren pertsonen autonomia handiagoa eta bizi-kalitate hobea izan dezaten.

Zerbitzu-sarearen bidez banako nahiz taldeko prestazioak eskaintzen ditugu, helburu hori lortzen laguntzen dutelakoan. Pertsona bakoitzari eskaintzen zaionak doitu eta egon behar du haren ezaugarrietara eta bizi duen egoerara, horrez gain Banako Plangintza Orokor batek bideratua izan behar du, plangintza horrek zehazten baitu emango den laguntzaren esparrua. Jarraian, Bizitegiren Banako Plangintza Orokorren dimentsioak jaso dira, bai eta prestazioen/jardueren tipologia ere. Jarduerok zerbitzu-sarean egiten dira eta eragin zuzena dute pertsonaren funtsezko eremuetan.

FUNTSEZKO EREMUAK

EKONOMIA, ZUZENBIDEA ETA LANA

- 1 Egoera ekonomikoa
- 2 Lanbide- eta lan-egoera
- 3 Egoera juridikoa eta eskubideen titulartasuna eremu ekonomikoan, lanekoan eta etxebizitzaren eremuan

BIZIKIDETZA

- 4 Etxebizitza-egoera
- 5 Harremanetarako aukera, lotura afektiboak, banakako eta familia-elkarbizitzarako gizarte-laguntza jasotzea sare nagusi eta bigarren mailakoetatik
- 6 Harreman pertsonalak, bizikidetzakoak, familiakoak
- 7 Eguneroko bizitzaren antolaketa
- 8 Elkarbizitzako harremanak eguneroko bizitzan sortzen diren hainbat testuingurutan



Munduko arrozak



"Gizarte-berrikuntza. Partaidetza komunitarioa" jardunaldia. Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea

PERTSONA

- 9 Gaitasunak – Gizarte-trebeziak
- 10 Hezkuntza – Formazioa – Informazioa – Trebakuntza
- 11 Bizi-dinamismoak
- 12 Aldaketarako gaitasuna – Babes-sistemen erabilera

GIZARTEA ETA OSASUNA

- 13 Osasun-egoera
- 14 Osasun mentala
- 15 Droga-mendekotasuna – Adikzioak
- 16 Eguneroko zereginetarako ezgaitasuna, mendekotasuna

GIZARTEA

- 17 Gizarte-onarpena eta eguneroko komunitate-elkarbizitza
- 18 Harremanak, gizarte-ingurunera eta inguruneke arauetara egokitzea
- 19 Besteekiko harremanak, eta parte hartzea gizartean

Bizitegiren Banako Plangintza Orokorreko pertsonaren funtsezko eremuak, Eusko Jaurlaritzaren *Gizarte Bazterketaren Diagnostikoa eta Balorazioa egiteko Tresna Tekniko Bateratuan* oinarrituta.

Bizitegi zerbitzuetako jarduerak

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



Banakako eta taldekako aholkularitza; laguntza eta jarraipena egoera judizialetan; dokumentazioa eta prestazio ekonomikoak kudeatzeko eta tramitzatzeko laguntza

LANPOSTU BATI BEGIRAKOAK



Kartoi-tailerra, larru-tailerra eta *Bizidenda* arropa-denda

LAN- ETA/EDO PRESTAKUNTZA-ORIENTAZIOA



Lan- eta trebakuntza-orientazioa; lan-egoeraren jarraipena; aktibazio-tailerra

ERREFERENTZIA



Pertsonaren gizarte-sarearekin koordinazioa: erreferentzia-baliabideak, familia... Dirua administratzea

LOTURA



Zerbitzuan hartzea, jaialdiak eta ospakizunak

BATZARRAK



Egoitza-zerbitzuetako eta Eguneko Zentroetako batzarrak

AISIALDIA ETA JARDUERA LUDIKOAK



Parte-hartzea bultzatzeko eta aisialdirako heziketa-tailerra; kafe-solasaldia, zine foruma, lehiaketak, etab.; irteera kulturalak, ludikoak, etab.; oporrak

EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK



Ingurumenarekiko sentsibilizazioa; higiena, itxura, norbere burua zaintzea; elikadura; etxeko lanak



Bizidendara bisitaldia

TEKNIKOAK, INSTRUMENTALAK



Kartoi-, arropa-, larru- eta zur-lantegiak

PRESTAKUNTZARAKOAK



Eskola-laguntza, informatika

GIZARTE-GAITASUNAK, GAITASUN KOGNITIBOAK ETA INSTRUMENTALAK



Errehabilitazio kognitiboa, gizarte-trebeziak, aldaketarako motibazioa, antzerkia; sormena, artea, kultura, musika, marrazketa, pirograbatua, eskulanak; josi, garbitu, bildu, trikotatu, lisatu eta sailkatu

OSASUNA



Informazioa, orientazioa, eta osasun-bidelaguntza; tratamenduaren jarraipena: bidelaguntzak, ospitalizazioak, sendagaien administrazioa; osasun-heziketa: kanpainak, hitzaldiak, monografikoak; kanpainak eta osasun-protokoloak, erizaintza, kirola, baratze ekologikoa, prebentzioa, erreflexoterapia, erlaxazioa

KOMUNITATE-LANA



Auzorako lana: jardunaldiak, jaiak, auzolana, tapoi-bilketa

SENSIBILIZAZIOA/SALAKETA



Salaketa-ekintzen prestakuntza eta bertaratzea



Arte-tailerreko kideak, txosten honen azala egiten

FUNTSEZKO EREMUAK

GIZARTEA PERTSONA EKONOMIA, ZUZENBIDEA ETA LANA GIZARTEA ETA OSASUNA BIZIKIDETZA

PROGRAMAK

ETXERIK GABE DROGA-MENDEKOTASUNAK DIBERTSIFIKATUA

Sentsibilizazioa, salaketa eta partaidetza komunitarioa

Komunitate-lana elkarbizitzako erronka bat da. Bizitegi elkartean lan gogorra egiten dugu gizarte justuago bat eraikitzeko. Gure helburua pertsona baztertuen beharrak asetzea da, haien bizi-baldintzak hobetzeko eta autonomia pertsonala lortzeko.

Bizitegik badaki ezin duela zerbitzu jakin batzuetara soilik mugatu; beraz, beste elkarte, instituzio eta pertsonekin lan egitea proposatzen du, gizarte-bazterketa sortzen duten arrazoiak desagerrarazteko. Gure helburua pertsona horiek gizarteratzea da, ez soilik bazterketa arintzea; eta ondorioz, ezinbestekoa da komunitatearekin eta gizartearekin harremanetan egotea. Programa guztietan aurkezten ditugun ekintzen funtsa gizarteratze-prozesuak erraztea da; hau da, pertsona bakoitzak ahalik eta naturalen egin dezan aurrera komunitatean eta gizartean.

Beraz, bi arrazoi ditugu komunitate parte-hartzea sustatzeko:

- Inguruko pertsona eta erakundeekin parte hartu nahi dugu elkartasunean helburu berdinak landuta, gizarte-aldaketa sustatzeko.
- Gizarteratu behar diren pertsonen prozesu indibidualak bermatu nahi ditugu komunitate parte-hartzearen bidez. Parte-hartzea da gizarteratzearen funtsa.

Ekimen askotan hartu dugu parte 2014an, eta 2015ean ere ekimen horietan parte hartzen jarraituko dugu era aktiboan.



Fair Saturday, kontzertu solidarioa. Gure esker ona adierazi nahi diegu Zirzira Ahots Taldeari eta Ugaoko Sarea Abesbatzari, Bizitegiren aldeko kontzertu hau egin izanagatik.



Pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen I. Partaidetza Topagunea. EAPN Euskadi



Giza Eskubideen Munduko Eguna jardunaldia



Osasun Mentalaren eguna

	LAGUNTZA JASO DUTENEN PROFILA			BATEZ BESTEKO AURRERAPEN-MAILA			LORTUTAKO HELBURUAK		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014	2012	2013	2014
BATEZ BESTEKO OROKORRA	50,53	50,29	47,47	%1,09	%0,99	%1,14	%67,77	%68,26	%72,11
E KONOMIA, LANA, BIZILEKUA	51,97	51,43	46,48	%1,20	%1,76	%2,10	%72,10	%74,59	%79,40
B IZIKIDETZA	50,92	49,84	46,52	%1,50	%1,30	%1,40	%71,20	%68,22	%73,90
P ERTSONA	42,04	43,08	40,84	%1,10	%0,81	%0,90	%60,40	%55,61	%59,50
C SASUNA ETA GIZARTEA	53,79	53,37	52,41	%0,70	%0,74	%0,80	%68,50	%77,71	%70,80
O SASUNA	55,24	54,94	51,94	%0,80	%0,26	%0,60	%67,50	%66,82	%87,00

Taula honetan jasotako datuek zenbait adierazle laburbiltzen dituzte, Bizitegiren *Dibertsifikatua* eta *Droga-mendekotasunak* programetan laguntza jaso duten pertsonen banako planetatik lortutakoak; bai eta Ireki proiektuan eta Onartu eguneko zentroan lortutakoak ere.

- **Laguntza jaso dutenen profila:** Adierazle honetan 1etik 100era arteko balio bat eman zaio pertsona bakoitzari, planean zehaztutako funtsezko eremu bakoitzean, lor daitekeen puntuazio altuena 100 izanik.
- **Batez besteko aurrerapen-maila:** Zenbat egiten duten aurrera Bizitegiko kideek gure zerbitzuetan urtebete igaro ostean, pertsona bakoitzaren profilak denbora-tarte horretan duen bilakaera neurtuta.
- **Lortutako helburuak:** Zer neurritan lortu diren zehaztutako helburuak, eremu bakoitzeko dimentsioetan helburutzat zehaztutako puntuazioetara zer neurritan hurbildu garen neurtuta.

Adierazle horiek behar bezala bereizita aztertzeak berebiziko garrantzia du zerbitzuak ebaluatu ahal izateko eta haietan egin daitezkeen hobekuntzak proposatzeko. Hauek dira 2014ko planen ondorio esanguratsuenak:

- Laguntza jaso duten pertsonen **bazterketa-perfila** ez da asko aldatu aurreko urteetatik; ez dago alde nabarmenik. Hauek dira ezaugarri aipagarrienak:

- Gizarte-eskubieak eskatzeko eta babes-sisteman sartzeko hasierako maila ona, Onartu eguneko zentroan lagundutakoek izan ezik.
- La-eremuan, okupazio-maila oso kaskarra, eta lan-merkatuan sartzeko aukera gutxi.
- Ingurura egokitze ona, moldatu ezina erakusten duten jarrera gutxi eta arazo penal gutxi.
- Gaitasun-arazoak: gaitasun eta abilezia sozialak, prestakuntza arlokoak, bizimoduak, aldaketaren aldeko jarrera eta eguneroko bizitzaren antolaketa.

- **Aurrerapen-maila** ez da nabarmen aldatu iazkotik, eremuei dagokienean. Ekonomiari lotutakoan gertatu da aldaketarik handiena (%2,02tik %3,07ra igaro gara), aurreko urtean galdutako diru-laguntza dezente berreskuratu baitira (DBE).
- Erabiltzaileek **lortutako helburuak** aztertzen baditugu, norberaren planetan proposatutakoa kontuan hartuta, badira azpimarratu beharreko emaitza batzuk. Izan ere, nabarmen hobetu da helburuen lorpen-maila eremu hauetan: egoera ekonomikoan, eguneroko bizikidetzat-testuinguruetako harremanetan, bizimoduari lotutako dinamiketan eta gizarte-esparruko 3 dimentsioetan. Or har, nabarmentzekoa da pertsona-esparruan eta gizarte-esparruan lortutako helburuen arteko aldea, hurrenez hurren, %59,50koa eta %87,00koa izan baita.

Bizitegiren laguntza-sarea

ETXERIK GABEKOAK

Eguna joan eta eguna etorri
Bilbon kale gorrian bizi diren
pertsonen lan egiten dugu.

DROGA-MENDEKOTASUNAK

Droga-mendekotasuna
edo eritasun mental larriak
dituztenekin lan egiten dugu.

MAZARREDO



BILBO

ELEJABARRI



HERNANI

ERREKALDE



PEÑASKAL



BIZIMODU INDEPENDENTEARI EUSTEKO LAGUNTZA

plaza pertsona
kop. kop.

(2) IREKI 6 6

EGUNEKO ZENTROAK

134 plaza

184 pertsonari laguntza



Normalizazioa eta birgizarteratzea helburu hartuta, espazioak eta jarduerak eskaintzen ditugu, erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta bertakotasun- eta afektibitate-loturak sortzeko.

	plaza kop.	pertsona kop.
Onartu. Exij. apalekoak	15	49
(2) Errekalde	25	29
(2) Uribarri	20	25
(3) 105	6	6
(2) (3) Erreabilitazioa	14	14
(2) (3) Irumineta	30	32
(2) (3) Zizeruene	24	29

HITZARTUTAKO ZERBITZUAK: (1) Udal-zerbitzua. Bilboko udala (2) Bizkaiko Foru Aldundia (3) Osasun Saila. Eusko Jaurlaritz

DIBERTSIFIKATUA

Arazo nagusizat eritasun mental larriak dituztenekin lan egiten dugu.

URIBARRI



20 plaza



6 plaza

URAZURRUTIA

MINA DEL MORRO



6 plaza



KOMUNITATEAN ETA GIZARTEAN ESKU-HARTZEA

359 pertsonari laguntza

Bilbon kale gorrian bizi diren pertsonen laguntza diegu.

- (1) Kanean esku-hartzeko taldea
- (1) Hezkuntza-laguntzarako taldea (Elejabarriko Udal Aterpetxea)

ATERPEA

132 plaza



Oinarrizko beharrianak asetzeko, higie-nea bermatzeko eta kalteak arintzeko; bai eta etxerik gabekoen kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko ere.

plaza kop. pertsona kop.

(1)	Udal Aterpetxea.		
	Exij.apalekoak	32	95
(1)	Neguko Aterpea	50	350
(1)	Udalaren Gaueko Aterpe Zerbitzua	50	259

OTXARKOAGA



74 plaza



54 plaza



BIZILEKUA

71 plaza

75 pertsonari laguntza

Bizileku duinak eta inguru egoki bat bermatzeko behar diren zerbitzuak eskaintzen ditugu, bizikidetza eta bizi-kalitate ezin hobea sustatzeko.

plaza kop. pertsona kop.

(2) (3)	Babestutako sarea	42	45
(2) (3)	Iruminetxe	7	7
(2)	Mina del Morro	6	10
(2)	Peñaskal	6	10
	Hernani	5	1
	Langaran	5	2

 Partaidetza Foroetan eta Sareetan



SAREAK

- **EAPN.** Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Europako Sarea. Euskadiko zuzendaritza batzordeko kide gara, eta hauetan parte hartzen dugu: partaidetza batzordea, gutxieneko diru-sarreraren batzordea eta, EAPNren ordezkari gisa, Bilboko Udaren gizarteratze batzordean.
- **Beste BI.** Etxebizitza eskubidearen eta etxerik gabekoaren aldeko plataformaren talde eragileko kide gara.
- **ASVAR.** Birgaiketa Psiko-sozialaren Euskal Elkartearen Zuzendaritza Batzordean parte hartzen dugu.
- **Gizardatz.** Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte.
- **Ekain.** Euskadiko gizarteratzearen aldeko sarea.
- **Fiare.** Banka etikoa.
- **Harresiak apurtuz.** Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinadora.
- **UNAD.** Drogaren mende dudenei laguntzeko elkarte eta entitateen Espainiako Batasuna.

FOROAK

- **Euskalit.** Bikaintasunerako Euskal Fundazioa.
- **Bolunta.** Boluntariotzarako eta Partaide-tzarako Agentzia.
- **Innovalan.** Eritasun mentalak dituztenak lan munduan sartzen laguntzeko ekimena.
- **Uribarri Auzolanean.** Uribarriko herri-taldeen, elkarten- eta mugimenduen- aliantza, elkarlanaren bidez auzoko beharrei erantzutea helburu duena.
- **Errekalden kaleratzerik ez.** Bizkaiko Hipotekek Kaltetuen Plataforma.
- **Bilboko Udala.** Lankidetza Hitzarmena Bilboko Udalarekin, etxerik gabeko pertso- nak gizarte-zerbitzuen bidez erroldatzeko prozedurak garatzeko.
- **Adierazleen Foroa.** Gizarte-arloko hainbat erakundeek sustatutako ekimena, erakunde parte-hartzaileen kudeaketa hobetzekoa.



ETXEBIZITZA ESKUBIDEA aldarrikatzeko FLASHMOBa. Beste Bi



Kudeaketa Aurreraturako Europako Astea, "Nola kudeatzen dugun berrikuntza. Tailer praktikoa". Adierazleen foroa

Kudeaketa aurreratuarekin konpromisoa



BIKAINTRASUNAREKIN KONPROMISOA
EUSKALIT
ERAKUNDEEN

Bizitegik bikaintasunarekin duen konpromisoaren erakusgarri, 2014an, berritu egin dugu **KUDEAKETA AURRERATUAREKIN** eta **BIKAINTRASUNAREKIN KONPROMISOA** aitortzen duen **DIPLOMA**. Konpromiso hori argi islatzen da azken urteotan kudeaketa hobetzeko eta berritzeko egindako ekintzetan, horiek gauzatzean hobetu egin baita erabiltzaileen, profesionalen, boluntarioen, gizartearen eta gainerako interesdun taldeen asebetetze-maila.

Diploma hori Euskalitek emana da –Eusko Jaurlaritzak sustatutako erakundea, kudeaketa aurreratuaren zenbait ezaugarri euskal erakundeetan aplikatzeko eta, horretan, Euskadin lehiakortasuna eta garapen iraunkorra bultzatzeko–, behin kanpoalderaketa prozesu bat burutu ostean, eta egindako lana aitortzen die kudeaketa hobetzeko erreferentzia gisa EFQM eredua hartu eta Bikaintasuna erdiesteko urratsak emateko konpromisoa hartu duten euskal erakundeei.



Euskalit gala. Bikaintasunarekin Konpromisoa diplomaren berritzea

Urtea

Kudeaketaren mugarriak

1997

Kalitate arloko trebakuntzan lehen urratsak

1999

Irabazi asmorik gabeko erakundeen Ekintza Trebakuntzan partaide. Euskalit
Erabiltzaileen asebetetzea. Urtero
Profesionalen asebetetzea. Urtero

2000

Bikaintasuna helburu hartuta lan egiteko apustu sendoa. EFQM eredua aukeratzea, kudeaketarako Autoebaluazioa / EFQM ebaluazioa 2000 / 2005 / 2006 / 2009 / 2013

2001

Kalitatearekin Konpromisoa lehen diploma, Euskalitek emana. 2001 / 2009. 2001 / 2009

2003

Kalitate arloko trebakuntza Elkarteko kide guztientzat

2004

Lehen Plangintza Estrategikoa 2005-2009

2005

Prozedura-mapa
Aginte Taldea osatzea

2007

Lidergo Plangintza eta lidergoaren ebaluazioa. Urtero

2008

Euskalit Ebaluatzaileen Klubean sartu. Kudeaketa-taldeko kide. 2008 / 2009 / 2012
Boluntarioen asebetetzea. Urtero

2009

Bikaintasunarekin Konpromisoa diplomaren bigarren berritzea
Lidergo Programetan parte hartzen hasi
Bigarren plangintza Estrategikoa 2010-2012 / 2013

2010

Bidelaguntza-eredua
Banako plangintzen metodologia
Prozedura-maparen berrikusketa /
Prozeduren berrikusketa
Erakunde finantzatzaileen asebetetzea. Urtero
Lehen 5S proiektua
Euskaliten kanpo-ebaluazioetan partaidetza, ebaluatzaile gisa

2011

Bekadunen eta praktiketan daudenen aseb. Urtero
Elkartearen asebetetzea. Urtero
Kasuen lehen gainbegiratzea

2012

Euskalduntze planeko lehen ekintzak
Ingurumen-kudeaketaren sustapena

2013

Berdintasun-diagnostikoa
EFQM autoebaluazioa
Bikaintasunarekin Konpromisoa diplomaren hirugarren berritzea

2014

EFQM autoebaluazioa
Bikaintasunarekin Konpromisoa diplomaren laugarren berritzea
Hirugarren plangintza Estrategikoa 2015-2018.
Aukera 18


Txosten ekonomikoa

Bizitegiren 2014ko jardunaren txosten ekonomikoak emaitza orekatu bat erakusten du. Jardun horretan, lankidetzaz hitzarmenak eta diru-laguntzak dira finantziazio-iturri nagusiak. Gastu nagusiak, berriz, baztertuta daudenei laguntzen dieten langileen soldatei, zerbitzuei, alokairuei eta azpiegituren mantentze-lanei dagozkie.




SARRERAK	€	%
Hitzarmenak eta diru-laguntzak	3.232.413	% 89
Erabiltzaileen ekarpenak eta donazioak	298.681	% 8
Finantza-sarrerak	1.503	% 0
Beste sarrera batzuk	62.454	% 2
Ekitaldira ekarritako diru-laguntzak eta donazioak	54.325	% 1
GUZTIRA	3.649.378	

SARRERAK, 2014



GASTUAK	€	%
Langileen soldatak	2.875.766	% 81
Alokairuak eta azpiegituren mantentze-lanak	210.024	% 6
Erabiltzaileentzako beste zerbitzu batzuk	211.420	% 6
Erosketak eta jarduerarako hornikuntza	153.831	% 4
Inbertsioen amortizazioa	90.410	% 3
GUZTIRA	3.541.452	

GASTUAK, 2014



Kontuen enpresa ikuskatzaileak, Euskoaudit SAPk, egindako txostenean jasotzen denez, urteko kontu horiek zintzotasunez erakusten dituzte Bizitegiren ondarea eta finantza-egoera.